

**EUSKO JAURLARITZAREN JUSTIZIA,
LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA
SAILAREN GAZTE JUSTIZIAREN
ZERBITZUAREN MEMORIA**



JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

**ADINGABEEN EPAITEGIEK EZARRITAKO
NEURRIAK 2006. URTEAN EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOAN GAUZATZEARI BURUZKO
AZTERKETA**

**ZIGOR BETEARAZPENAREN
ZUZENDARITZA**

AURKIBIDEA

I.	HITZAURREA.....	2
II.	ESKU-HARTZEAREN ESPARRUA.....	2
	A. ARAUDIA ETA ANTOLAMENDUA.....	2
	B. ORGANO JUDIZIALEN ETA FISKALTZAREN ESKU-HARTZEA.....	2
	C. ADISKIDETZEKO ETA KALTE ORDAINKETARAKO BITARTEKOTZA (5/2000 Lege Organikoaren 19. art.)	10
III.	NEURRIAK GAUZATZEKO BALIABIDEAK	18
IV.	2006. URTEKO NEURRIAK: BILAKAERA ETA OROKORTASUNAK	28
	A. NEURRIEN BILAKAERA 2002-2006 ALDIAN	28
	B. NEURRIEN AZTERKETA.	32
	C. BARNERATZE NEURRIAREN ETA ASTEBURUKO EGONALDIKO NEURRIAREN BERARIAZKO AZTERKETA.....	54
V.	PERTSONA BAKOITZEKO NEURRI ANIZTASUNA, 2006. URTEAN.....	72

I. HITZAURREA

Memoria honen helburua Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzako Gazte Justiziaren Zerbitzura Adingabeen Epaitegiek 2006. urtean bidalitako neurrien betearazpena aztertzea da.

Hemen aurkezten dugun azterketarekin Gazte Justiziak Euskal Autonomia Erkidegoan suposatzen duen errealitatea pixka bat gehiago ezagutu nahi dugu, honako hauek ezagututa: neurrien bilakaera, horien ezarpen-maila, oinarrizko ezaugarriak, behar bezala betetzeko hutsuneak eta ahuleziak, esku-hartzearen xede direnen oinarrizko profila, etab.

Abiapuntu gisa, EAEko Gazte Epaitegietatik (lau epaitegi) bidali dizkiguten betearazteko espedienteak erabili ditugu, baita Euskadin bizi eta epaituak ostean neurriren bat ezarri zaien neska-mutilen espedienteak ere. Gainera, Talde Teknikoen (Talde Psikosoziala) txostenak eta adingabe bakoitzaren espediente pertsonalean bildutako informazioa erabili ditugu.

Aurkeztuko dugun informazioaren helburua ez da eskuragarri dagoen informazio guztia biltzea, baizik eta sistematikoki epaitegi guztietan jasotzen dena soilik.

II. ESKU-HARTZEAREN ESPARRUA

A. ARAUDIA ETA ANTOLAMENDUA

Gazte-justiziaren abiapuntua honako hau da: nerabeekin eta gazteekin lan egitea, hain zuzen ere, une jakin batean, 14 eta 18 urte bitarteko adina izanik, hutsegite edo delitu gisa tipifikatuta dauden ekintzak egiteagatik Gazte Epaitegiak neurri batekin zigortu dituztenekin.

Gazte Justiziaren eremuan jarduten dutenen jarduera-eremua (prozedurak, neurriak, baliabideak, eskumenak, etab.) arautzen duten lege-testuak honako hauek dira: Adingabeen Erantzukizun Penal arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa; lege hori garatzen duen Araudia, uztailaren 30eko 1774/2004 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa; eta Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko Eusko Legebiltzarraren 3/2005 Legea.

B. ORGANO JUDIZIALEN ETA FISKALTZAREN ESKU-HARTZEA

Memoria honetan ez dira aztertuko prozedurak, ez neurri bat ala bestea egokiagoa ote den, ezta operadore juridikoen eta gizarte-arlokoen zeregina ere. Aitzitik, memoria honen zeregina honako hau izango da: gazte-neurriak betearaztearen erantzule izaki, adingabeak berrezteko erakunde publikotik zenbait biltzea, 2006. urteari buruz.

Hala ere, Gazte Justiziaren Zerbitzuaren esku-hartzea gauzatzen den errealitatea testuinguruan jartzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltzen eta Adingabeen Epaitegien jardunei buruzko datu orokorrak aurkeztuko ditugu, honako hauen

Memorietatik ateratako estatistika-informazioan oinarrituta: Estatuko Fiskaltza Nagusia, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusia, Justizia Administrazioaren Euskal Behatokia, eta EAEko organo judizialen prozesu-kudeaketako aplikazioa.

Adingabeen Fiskaltzetan 2006. urtean sartutako arau-hausteen zerrenda


ARAU-HAUSTEEN SALAKETAK	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOIA
DELITUAK	356	526	2.085	2.967
Kalteak	48	57	392	497
Ebasketak	103	93	408	604
Indarkeriaz egindako lapurretak	19	23	224	266
Erabilerarako lapurretak edo ebasketak	1	43	110	154
Indarkeriaz/larderiez egindako lapurretak	19	37	231	287
Trafikoaren segurtasunaren aurkakoak	5	3	2	10
Osasun publikoaren aurkakoak	4	4	49	57
Sexu-askatasunaren aurkakoak	4	15	21	40
Lesioak	88	131	538	757
Bizitzaren eta osotasun fisikoaren aurkakoak	---	0	0	0
Etxeko indarkeria eta genero-indarkeria	23	20	58	101
Beste batzuk.	42	100	52	194
HUTSEGITEAK	50	287	---	337
Jabetza	31	80	---	111
Pertsonak	16	98	---	114
Beste batzuk	3	109	---	112
GUZTIRA	406	813	2.085	3.304

Iturria: Estatuko Fiskaltza Nagusia

Deigarri egiten zaizkigun gauzen artean lehenengoa datu-bilketan homogeneotasunik eza da; izan ere, Araban eta Gipuzkoan hutsegiteak eta delituak bereizten dira, eta Bizkaian, aldiz, ez. Hala ere, ondorengo neurri-ezarpenari dagokionez, eta beste iturri batzuen arabera, Bizkaian bereizketa hori badago.

Arau-hausteen salaketen banaketari dagokionez, datuak honako hauek dira (guztizko zifrak hartzen dira kontuan, hutsegiteak eta delituak bereizi gabe):

- Araba.....%12,29
- Gipuzkoa.....%24,61
- Bizkaia%63,10



Lurralde bakoitza aztertuz, honako emaitza hauek lortu ditugu:

Araba

- Arau-hausteen %12,30 hutsegitezat hartzen dira eta %87,70 delitutzat.
- Hutsegiteak funtsean jabetzaren aurkakoak dira (%62).
- Gehien errepikatzen diren delituak honako hauek dira:
 - %28,93ebasketak
 - %24,72lesioak
 - %13,48kalteak
 - %11,80beste delitu batzuk
 - %6,46etxeko indarkeria eta genero-indarkeria

Gipuzkoa

- Arau-hausteen %35,30 faltatzat hartzen dira eta %64,70 delitutzat.
- Hutsegite gehienak “beste batzuk” atalean biltzen dira, eta jabetzaren aurkako hutsegiteak %27,90era iristen dira.
- Gehien errepikatzen dira delituak honako hauek dira:
 - %24,90lesioak
 - %19,01beste delitu batzuk
 - %17,68ebasketak
 - %10,83kalteak
 - %8,17erabilerarako lapurreak edo ebasketak


Bizkaia

- Hutsegiteak eta delituak ez dira bereizten.
- Gehien errepikatzen diren arau-haustek honako hauek dira:
 - %25,80lesioak
 - %19,57ebasketak
 - %18,80kalteak
 - %11,08indarkeriaz/larderiez egindako lapurretak
 - %10,74indarkeriaz egindako lapurretak

Hiru lurraldeen arteko konparaketak egitea oso zaila da, izan ere, lehen esan bezala, Bizkaian ez dira hutsegiteak eta delituak bereizten. Hala ere, arau-hausteen hasierako sailkapena harrigarria da, alde oso esanguratsuak sortzen baitira, eta, Gipuzkoarekin eta Arabarekin alderatuta, Bizkaiko errealitatea nabarmendu beharra dago.

Memoria horretan, Estatuko Fiskaltza Nagusiak honako informazio hau aurkeztu du 2006. urteari buruz:

Jasotako arau-haustek	→	3.304
↓		
Aldez aurreko izapideak	→	2.675
↓		
Erreforma-espedienteak	→	1.261
↓		
Alegazioen idazkiak	→	956



Datu horien arabera, Aldez aurreko Izapideen %47,14k bakarrik ekarri dituzte Erreforma Espedienteak, eta, horietatik, %24,19 (305) artxibatu egin dira.

Datu horiek adingabeen justiziaren arloan jarraitzen den hautaketa-prozesuaren oinarritzko ezaugarriak erakusten dizkigute. Zigor-zuzenbideko arau-hauste bat eragin dezaketen gertakarien kasuan Aldez aurreko Izapideak egiten dira, eta horietatik Erreforma Espedienteak ondorioztatzen dira, eta horien ondoren alegazioen idazkiak egiten dira (gertatutakoaren azalpena, gertakarien balioespen juridikoa, adingabearen partaidetza-maila, adingabearen egoera pertsonalaren eta sozialaren azalpen laburra, proposatzen den neurria, etab.). Hau da, arau-hausteen salaketa guztien %29k bakarrik ekartzen dute Fiskaltzaren alegazio-idazkia egitea.

2006. urtean, Estatuko Fiskaltza Nagusiak guztira 2.801 neska-mutilekin esku hartu dutela adierazi du; gazte horien %38,3 14 eta 15 urtekoak dira, eta gainerakoak, %61,7a, 16 eta 17 urtekoak dira.



Fiskaltzetan jasotzen diren “arau-hausteei” dagokienez, honako taula honetan azaltzen den moduan banatzen dira:

ARAU-HAUSTEAK – 2006. URTEA

	JABETZAREN AURKA INDARKERIA- RIK GABE	JABETZAREN AURKA INDARKERIA- REKIN	SEXU ASKATASUNA- REN AURKA	BIZITZAREN EDO INTEGRITATE FISIKOAREN AURKA	ETXEKO INDARKERIA ETA GENERO- INDARKERIA	OSASUN PUBLIKOA- REN AURKA	BESTE BATZUK	GUZTIRA
BIZKAIA	1.134	231	21	538	58	51	---	2.033
GIPUZKOA	216	37	15	131	20	---	7	426
ARABA	171	19	4	88	23	---	9	314
GUZTIRA	1.521	287	40	757	101	51	16	2.773
GUZTIRA %	54,85	10,39	0,14	27,30	3,64	1,83	0,58	100

Iturria: Estatuko Fiskaltza Nagusia

Indarkeriarik gabe jabetzaren aurka egindako arau-hausteak nagusitzen dira, ia %55 izanik, eta horien ondoren indarkeriarekin bizitzaren eta integritate fisikoaren aurka (%27,3) eta jabetzaren aurka (%10,34) egindakoak daude.



Jokabide-ildo logikoari jarraituta eta erakunde publikoaren berezko datuak aurkeztu aurretik, estatistika judizialera jo dugu. Iturri nagusi gisa, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren memoriara jo dugu, baina ezin izan dugu daturik atera, Araban ez delako zifrarik agertzen eta Bizkaiko eta Gipuzkoako tauletan datuak ez direlako epigrafe berberen pean agertzen, eta, beraz, horien azterketa eta konparaketa egitea ezinezkoa da. Egoera hori dela-eta, honako hauetara jo dugu: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak argitaratutako datuetara, Justizia Administrazioaren Euskal Behatokiaren Memoriara, eta Justizia Sailburuordetzaren organo judizialen prozesu-kudeaketako aplikazioaren estatistiketara.

ESPEDIENTE KOPURUA – 2006. URTEA


	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	GUZTIRA
Erreforma Esp.	180	402	674	1.256
Erantzukizun zibilaren piezak	180	371	634	1.185

Iturria: Organo judizialen prozesu-kudeaketako aplikazioa

Erreforma-espedienteen datu guztiak bat datoz Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren estatistiketan agertzen den “adingabeen epaitegietako gaiak” epigrafearekin.

Era berean, Estatuko Fiskaltza Nagusiak emandako zifrekin alderatuta, zifrak ia berdinak dira, eta desbideratzea %0,5 baino txikiagoa da.

Erantzukizun zibilaren piezei dagokienez, desbideratzea %2,5ekoa da, eta aldea Araban metatzen da, izan ere, iturri batetik eta bestetik lortutako datuen arteko 30 piezako aldearen 19 pieza bertakoak dira.




Neurrien ezarpenarekin lotutako alderdia ere nabarmendu beharra dago.

EPAITUTAKO ADINGABEAK – 2006. URTEAN

	NEURRIEN EZARPENA ERAGINDAKO DELITUAK	NEURRIEN EZARPENA ERAGINDAKO HUTSEGITEAK	NEURRIEN EZARPENIK GABE	GUZTIRA
ARABA	57	63	7	127
%	44,9	49,6	5,5	11,4
GIPUZKOA	170	153	20	343
%	49,6	44,6	5,8	31
BIZKAIA	340	235	63	638
%	53,3	36,8	9,9	57,6
GUZTIRA	567	451	90	1.108
%	51,2	40,7	8,1	100

Iturria: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia

Taula horretan deigarria da epaitutako gertakarien %51k bakarrik ekartzen duela neurrien ezarpena delitu bat egiteagatik, izan ere, %41ek hutsegiteak egiteagatiko neurriak bete behar baitituzte, eta %8k ez du neurririk jasotzen.



Aurrerago ikusiko dugunez, 2006. urtean 633 pertsonari ezarritako 1.059 neurri berri (gehi kautelazko 48) jaso dira Gazte Justiziaren Zerbitzuan. Datu horren arabera, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren datuetan neurrien kopurua adingabeen kopuruarekin nahasten dela dirudi; neurrien ezarpena eragin duten 1.018 delitu agertzen dira, baina horrek ez du esan nahi pertsona desberdinak direnik, neska-mutilen kopuru handi batek neurri bat baino gehiago jasotzen baitu (ikus Memoria honen azken idatz-zatia).

Idatz-zati honen ondorio gisa, bi hausnarketa nagusi egin daitezke: alde batetik, iturri desberdinen estatistikako informazioa homogeneizatzeko beharra, estatistiketan parametro berberak erabil ditzaten eta, beraz, informazio-trukea eta gardentasuna erraztuz; eta, beste aldetik, gazteek egiten dituzten arau-hausteen eta sistema judizialaren erantzunen errealitateari eta bilakaerari buruzko informazio esanguratsua estatistiketan biltzeko beharra.

C. ADISKIDETZEKO ETA KALTE ORDAINKETARAKO BITARTEKOTZA (5/2000 Lege Organikoaren 19. art.)


Euskal Autonomia Erkidegoan, adiskidetzeko eta kaltea ordaintzeko bitartekotza-prozesuak Talde Psikosozialerako profesionalek gauzatzen dituzte, eta talde horien antolamendua Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren menpe dago. Era berean, 5/2000 Lege Organikoak Talde Teknikoei aitortzen dizkien eginkizunak gauzatzen dituztenak talde horiek dira.

2006. urteko datu nabarmenenak honako hauek izan ziren:

BITARTEKOTZA/KALTE ORDAINKETA EPAITEGIEN ARABERA BANATUTA – 2006. URTEA

	Gasteiz		Donostia		Bilbo		GUZTIRA	
Espediente kopurua	43	%13,8	79	%25,4	189	%60,8	311	%100
Adingabe kopurua	64	%15,1	107	%25,3	252	%59,6	423	%100

Bizkaiko Lurralde Historikoan egin dira mota horretako prozedura gehienak, guztizkoaren %60, alegia. Aurreko urteko zifrekin alderatuta, Donostian nabarmen handitu dira, eta egoera hori EAE osoan duen garrantzira gehiago gerturatzen da.




BITARTEKOTZA/KALTE ORDAINKETA
BITARTEKOTZA GAUZATZERAKOAN DUEN ADINA – 2006. URTEA

	Gasteiz		Donostia		Bilbo		GUZTIRA	
14 urte	14		16		49		79	%18,7
15 urte	16		30		60		106	%25,0
16 urte	14		32		70		116	%27,4
17 urte	20		24		73		117	%27,7
Ez dago daturik			5				5	%1,2
GUZTIRA	64	%15,1	107	%25,3	252	%59,6	423	%100

Adierazi beharreko lehen gauza da Donostian 5 kasutan adina ez dela jaso edo gaizki jaso dela, eta, beraz, oro har, kasuen %1,2n ez dugu adina ezagutzen.

Adinen araberrako banaketak oso antzeko zifrak erakusten ditu 15 eta 17 urte bitartekoen kasuan, eta askoz txikiagoak dira 14 urtekoen kasuan.





BITARTEKOTZA/KALTE ORDAINKETA

ARAU-HAUSTE MOTAK – 2006. URTEA

		Gasteiz	Donostia	Bilbo	GUZTIRA
Gauzen aurka	Lapurreta	2	8	35	45
	Ebasketa	14	19	42	75
	Kalteak	8	39	49	96
	Beste batzuk	2	3	15	20
	Subtotala	26	69	141	236
Pertsonen aurka	Irainak/ mehatxuak	13	11	31	55
	Erasoak/ lesioak	16	18	91	125
	Beste batzuk	13	9	13	35
	Subtotala	42	38	135	215
GUZTIRA		68	107	276	451

Deigarria egiten den lehenengo gauza pertsonen aurka (%47,7) eta gauzen aurka (%52,3) egindako arau-hausteeak ia proportzio berbera dutela da. Garrantzi handiena honako hauek dute: erasoak eta lesioak —kasuen %27,7 osatzen dute—, jabetza publikoen eta pribatuen kalteak —%21,3ra iristen dira—, eta ebasketak —%16,6 osatzen dutela—. Arau-hausteeak pertsonen aurka —erasoak, borrokak, mehatxuak, irainak— eta gauzen aurka —kalteak— indarkeria erabiltzea nagusitzen den eszenario batean kokatzen gaituzte. Gazte Justiziaren arloan ohikoagoak izan daitezkeen arau-hausteeetan (ebasketa eta lapurreta) ez bezala, dirudienez oinarrian harremanekin loturiko arazoak daude, gatazkak behar ez bezala konpontzea, eta ez irabazi materialak lortzea.




BITARTEKOTZA/KALTE ORDAINKETA
BIKTIMAK – 2006. URTEA

	Gasteiz	Donostia	Bilbo	GUZTIRA
Heldu bat	18	29	70	117
Adingabe bat	27	24	79	130
Erak. publiko bat	3	20	32	55
Erak. pribatu bat	13	17	39	69
>heldu 1	0	4	13	17
>adingabe 1	0	3	7	10
>Erak. publiko 1	0	2	4	6
>Erak. pribatu 1	0	3	8	11
Heldua(k) eta adingabea(k)	3	0	0	3
Erak. publikoak eta pribatuak	0	0	1	1
Ez dago daturik	0	5	0	5
GUZTIRA	64	107	253	424

Biktimei dagokienez, honako faktore hauek azpimarra ditzakegu:

- Kasuen %33n, biktima edo biktimak adingabeak izan dira.
- Kasuen %31,6n, biktimak pertsona helduak izan dira.
- Erakunde publikoak kasuen %14,4n.
- Erakunde pribatuak kasuen %18,9n.
- Hirutik bitan, arau-haustea –irainak, mehatxuak, erasoak, etab.– zuzenean jasan duena pertsona bat edo pertsona talde bat izan da.







BITARTEKOTZA/KALTE ORDAINKETA
GAUZATUTAKO BITARTEKOTZA PROZESUAREN EDUKIA – 2006. URTEA

	Gasteiz	Donostia	Bilbo	GUZTIRA
TOPAKETAREKIN ETA AKORDIOAREKIN	36	41	97	174
Esponenteak	0	1	2	3
Adiskidetzeta	0	0	1	1
Ekonomikoa	0	1	1	2
Gzrtaren Msdrako Jarduera	0	0	0	0
Bitartekotzarekin	36	40	95	171
Adiskidetzeta	22	15	61	98
Ekonomikoa	13	9	28	50
Gzrtaren Msdrako Jarduera	1	16	6	23
ZUZENEKO HARREMANIK GABE	32	47	149	228
Gutunak	7	20	38	65
Jarduera	22	21	108	151
Beste batzuk	3	6	3	12
DATURIK GABE/OKERRAK	8	19	50	77
GUZTIRA	76	107	296	479

Kasuen %36,3n bitartekotza-prozesu bat gauzatu da biktimaren eta kalte-eragilearen arteko topaketa zuzenarekin. Datu horrek adierazten duenez, aurreko urteko egoerarekin alderatuta, ia 20 puntu jaitsi da. 3 aldiz bakarrik gertatu da bien arteko topaketa espontanea, hau da, bitartekariaren ekimenik gabe. Topaketa gertatu den kasuetan, arazoa konpontzeko gehien erabili den baliabidea adiskidetzeta izan da.


Azpimarratu beharra dago kasuen ia erdian konpondu dela kaltea biktimarekin edo biktimekin topaketa zuzena egin gabe –erakundeei egindako kalteak, lokalizatu gabeko biktimak edo prozesuan parte hartu nahi ez dutenak, etab.–. Kasu horietan, nabarmentzen den jarduera gizartearen mesederako jarduerak egitea da. Jardun horiek bitartekariaren eta arau-hauslearen arteko akordio batetik ondorioztatzen dira, eta ez dira inoiz epai baten bitartez egiten.

Bitartekotza/Kalte-ordainketa Gauzatutako bitartekotza-prozesuaren edukia – 2006. urtea



BITARTEKOTZA/KALTE ORDAINKETA
AMAIERA – 2006. URTEA

	Gasteiz	Donostia	Bilbo	Guztira
Positiboak	50	99	200	349
Negatiboak	14	8	52	74
GUZTIRA	64	107	252	423



Bitartekotza-prozesuak gauzatzen dituzten taldeek arrakastatsutzat balioetsi dituzte bitartekotzako/kalte-ordainketako prozesuen %82,5, eta, beraz, kasu horietan, ekintza judiziala kasua artxibatzearekin amaitzen da. Egoera hori orokorra dela aintzat hartuta, harritzekoa da hiru lurraldeetako emaitzen arteko aldea: Araban, kasuen %21,9k emaitza negatiboa daukate, Gipuzkoan ia %7,5ek, eta Bizkaian %20,7k. Zifra horien arteko aldearen arrazoia prozesuen gauzatzean bilatu ordez, datuak kalkulatzeko moduan bilatu behar da. Kasu batzuetan, arazoak hasiera batean bitartekotzarekin konpontzekoak direla uste da, baina gero ez da halakorik egiten gutxieneko baldintza batzuk betetzen ez direlako, eta kasu horiek negatibo gisa zenbatzen dira. Beste lurralde batzuetan, gutxieneko baldintzak betetzen direla uste izanagatik prozesuak hasi diren arren, aurreikusiriko helburuak betetzen ez badira, kasu horiek hartzen dira negatibotzat bakarrik.

Oharra: Adingabeen, espedienteen, biktimen eta edukien kopuruak ez datoz bat kasu batzuetan bat baino gehiago elkartzen direlako.

III. NEURRIAK GAUZATZEKO BALIABIDEAK


5/2000 Lege Organikoak, 45. artikuluan, administrazio-arloko eskumena zehazten du:

- “1. Adingabekoen Epaileek euren epai irmoetan harturiko neurriak betearaztea **Autonomia Erkidegoen** eta Ceuta zein Melilla hirien eskumena da, Adingabekoaren Babes Juridikoaren urtarrilaren 15eko 1/1986 Lege Organikoaren hogeita bigarren azken xedapenaren arabera. **Erakunde publiko** horiek, euren antolamendu-arauei jarraiki, Lege horretan aurreikusiriko neurriak behar bezala betearazteko zerbitzu, erakunde eta programa egokiak sortu, zuzendu, antolatu eta kudeatuko dituzte.*
- 2. Neurriak betearaztea, epaia eman duen Adingabekoen Epaitegia dagoen **Autonomia Erkidegoei** edo Ceuta zein Melilla hiriei egokituko zaie, hurrengo artikulua 3. idatz-zatian xedatutakoa alde batera utzi gabe.*
- 3. Autonomia Erkidegoek eta Ceuta zein Melilla hiriek beharrezkoak diren lankidetzahitzarmenak edo -itunak ezarri ahal izango dituzte beste erakunde batzuekin —Estatu, Udal edo beste Autonomia Erkidego batzuetako Administrazioko erakunde publikoekin, edo irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuekin— euren eskumeneko neurriak betearazteko. Eurek ikuskatuko dituzte zuzenean, eta ez dute ezein kasutan utziko betearazte horren titulartasuna eta erantzukizuna”.*

1996. urteaz geroztik, Euskal Autonomia Erkidegoan Justizia alorrean eskumena duen Saila —gaur egun Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila— da arestian adierazitako 5/2000 Legearen 45. artikuluan aipatzen den eskumeneko erakunde publikoa. Haren barneko antolamenduari dagokionez, urriaren 21eko 315/2005 Dekretuak –Sailaren Egitura Organikoari buruzkoa– Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzak izango du aipatutako eskumena.

Administrazio-arloko antolamenduaren ikuspegitik, Gazte Justiziaren Zerbitzuak du neurriak betearazteko zuzeneko erantzukizuna.

GAZTE JUSTIZIAREN ZERBITZUAREN ANTOLAMENDUA



(1) GAZTE JUSTIZIAREN ZERBITZUA

Osaera:

- Zerbitzuko arduradun 1
- Gazte Justiziako 3 teknikari (zentroen arduradun 1 eta ingurune irekiko neurrien 2 arduradun)
- Gazte Justiziako 3 lurralde-teknikari
- Gazte Justiziako letratu 1
- 2 administrari

(2) HEZKUNTZA ZENTROEN SAREA

Sare horren helburua Gazte Epaitegiek emandako askatasunaz gabetzeko neurria bete behar duten neska-mutilak barneratze- edo egonaldi-erregimenean hartzea da.

2006. urtearen amaieran honako hauek funtzionamenduan zeuden:

HEZKUNTZA ZENTROA	MAILA	LEKUA	PLAZA KOP.	KUDEAKETA
IBAIONDO	I	Zumarraga	34 (mutilak)	Zuzenekoa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila
MENDIXOLA	II	Aramaio	12 (mutilak)	Zeharkakoa, Berriztu Hezkuntza Elkartearen bidez
MIGUEL ÁNGEL REMÍREZ (CEMAR)	II	Ortuella	7 (mutilak)	Zeharkakoa, Berriztu Hezkuntza Elkartearen bidez
ANDOIU	II	Andoiu	7 (mutilak)	Zeharkakoa, Gaztaroan Ekin Elkartearen bidez
BILBOKO AUTONOMIA EGOITZA	III	Bilbo	4 (mutilak)	Zeharkakoa, Berriztu Hezkuntza Elkartearen bidez
GASTEIZKO AUTONOMIA EGOITZA	III	Gasteiz	4 (mutilak eta neskak)	Zeharkakoa, Gaztaroan Ekin Elkartearen bidez
DONOSTIAKO AUTONOMIA EGOITZA	III	Bilbo	4 (mutilak)	Zeharkakoa, Berriztu Hezkuntza Elkartearen bidez

I. MAILAKO ZENTROAK

Ibaiondo Hezkuntza Zentroa

2006. urtean zehar plantilla osoa zentroan lanean hasi da; plantilla Herri Administrazioari (Eusko Jaurlaritza) langileek osatzen dute.



Ibaiondo Hezkuntza Zentroak honako plantilla hau du 2006ko abenduaren 31n:

Zentroko arduradun 1	(Funtzionarioa)
Hezkuntza-arduradun 1	(Funtzionarioa)
Administrazio-arduradun 1	(Funtzionarioa)
Administrari 1	(Funtzionarioa)
Psikologo 1	(Lan-kontratupekoa)
2 gizarte-langile	(Lan-kontratupekoak)
5 koordinatzaile	(Lan-kontratupekoak)
50 hezitzaile	(Lan-kontratupekoak)

Ikasgelako eta lantegiko langileei dagokienez, Hezkuntza Sailarekin akordio bat egin da, eta, horren bitartez, ikasgelako 6 irakasle eta lantegiko 6 irakasle (zura, elektrizitatea/galdarak, informatika, baratzezaintza eta obrak) hartu dituzte hezkuntza-zentroan.

Era berean, asistentzia sanitarioari dagokionez, hezkuntza-zentroan berariazko langileak behar dira. "Osakidetza" Euskal Osasun Zerbitzuarekin egindako akordio baten bitartez, egunero, bi orduz, familia-mediku bat eta erizain bat joango dira hezkuntza-zentrori. Horiek arduratuko dira hasierako osasun-azterketak egiteaz eta zentroan daudenen alderdi sanitarioen eta osasun-alderdien jarraipena egiteaz.

Erakunde pribatu batek kudeatzen du sukalde- eta garbitegi-zerbitzua, kontratu bidez (lehiaketa publikoa).

2006ko abenduaren 31n, ikastegiko 5 hezkuntza-taldeak daude zabalik, eta 34 leku daude, mutilentzat. Talde horietako batek barneratze terapeutikoko neurriak bete behar dituzten edo barneratze-erregimenean dauden bitartean alderdi terapeutikoan gehiago sakontzea behar duten mutikoak hartzen ditu. Eskaera horri erantzuteko, zentroko plantilla finkoaz gain, astean 8 orduz psikologo kliniko baten laguntza dago.

II. MAILAKO ZENTROAK

Miguel Ángel Remírez hezkuntza-zentroa

Profesionalen kopurua iazko bera izan da:

- Hezkuntza-zentroko arduradun 1
- Koordinatzaile 1
- 10 hezitzaile
- Ikasgelako eta lantegiko 2 maisu-maistra
- Sukaldari 1

Abenduaren 31n, 7 leku erabilgarri daude, mutilentzat denak ere.

Mendixola hezkuntza-zentroa



Mantentze-obra txikiak egin dira, eta 2008. urtetik aurrera hezkuntza-zentroa goitik behera birmoldatzea aurreikusi da.

Iazko plantillari bere horretan eutsi zaio:

- Hezkuntza-zentroko arduradun 1
- Koordinatzaile 1
- Ikasgelako eta lantegiko 2 maisu-maistra
- 12 hezitzaile
- Sukaldari 1
- Garbitzaile 1

Abenduaren 31n, 12 leku erabilgarri daude, denak mutilentzat.

Andoiu hezkuntza-zentroa

Iazko plantillari bere horretan eutsi zaio:

- Hezkuntza-zentroko arduradun 1
- 2 koordinatzaile
- 12 hezitzaile
- Sukaldari 1



Abenduaren 31n, 7 leku erabilgarri daude, denak neskentzat.

III. MAILAKO ZENTROAK

Hiru autonomia-egoitzak zabalik eduki dira:

- Bilboko Autonomia Egoitza
 - o 4 leku erabilgarri mutilentzat
 - o Arduradun 1 eta 5 hezitzaile
- Gasteizko Autonomia Egoitza
 - o 4 leku erabilgarri (mistoak)
 - o Arduradun 1 eta 5 hezitzaile
- Donostiako Autonomia Egoitza
 - o 4 leku erabilgarri mutilentzat
 - o Arduradun 1 eta 5 hezitzaile

Zentroetan eskuragarri dauden lekuen guztizko kopurua:

Zentro mota	Leku kopurua	2006an artatutako adingabeak
I. maila	34	67
II. maila	26	81
III. maila	12	33
GUZTIRA	72	181

I. mailako zentro batean artatuak izan ziren 67 pertsona zuzenean bertan ingresatu ziren edo lekualdatu ziren, batez ere III. mailako zentro bateko desbideratze negatiboagatik.

II. mailako zentro batean artatutakoak zuzenean bertan ingresatu ziren edo desbideratze positiboagatik lekualdatuak izan ziren, Ibaiondo hezkuntza-zentrotik edo, desbideratze negatiboagatik, III. mailako zentro batetatik. Pertsona jakin batzuk II. mailako zentroz aldatu ziren, haien etxebizitzatik gertuago egoteko edo zentro horren ezaugarriak pertsona horren ezaugarri zehatzetarako egokiagoak zirelako.

III. mailako zentroetara I. edo II. mailako zentro batetik desbideratze positiboagatik bakarrik sartu ahal da.

2006. urtean, ez da barneratze-neurririk bideratu gure autonomia-erkidegotik kanpoko ezein zentrori. Aukera hori honako bi kasu hauetarako aurreikusita dago: Adingabeen Epaitegiak adingabeari EAetik irtetea komeni zaiola zehazten duenerako edo adingabea beste autonomia-erkidego batean bizi den kasurako (5/2000 Lege Organikoaren 46.3 artikulua).

Batez besteko okupazioa %85etik gorakoa izan da urte osoan.

(3) 2006. URTEAN INGURUNE IREKIAN NEURRIAK GAUZATZEKO ZERBITZUAK

- Ingurune Irekiko Zerbitzua, Bizkaia 1: 6 hezitzaile
- Ingurune Irekiko Zerbitzua, Bizkaia 2: 5 hezitzaile
- Ingurune Irekiko Zerbitzua, Gipuzkoa: 5 hezitzaile
- Ingurune Irekiko Zerbitzua, Araba: 3 hezitzaile

Bizkaiko Eguneko Zentroaren funtzionamendua finkatu egin da. Zentro horretako plantilla arduradun batek, lantegiko maisu batek eta 3 hezitzailek osatu dute. 15 neska-mutilentzako leku erabilgarri izan dira.

Oro har, 15eko ratio egokiari eustea lortu da, profesionalen eta esleitutako kasuen kopuruaren artean. Profesional bakoitzeko 15 gazteren gehieneko ratioa noizean behin gainditu da, bigarren seihilekoaren aste batzuetan, eta, beraz, lan-gainkargak gertatu dira. Gertakari hori arretaz zaindu beharko da 2007. urtean, eta profesionalen kopurua eskaerara egokitu beharko da, baita 5/2000 Lege Organikoaren aldaketaren ondorioz ager daitezkeen eskaeretara ere.

(4) GIZARTEARENTZAKO ZERBITZUAK

Neurri judizialak betetzen dituzten adingabekoen hezkuntza-proiektuetan normalean parte hartzen duten zerbitzuak eta erakundeak biltzen ditu.



- Gizartearentzako zerbitzuak, prestakuntza-jarduerak, aisialdiko jarduerak, familiari laguntzeko jarduerak, droga-mendetasunaren prebentziorako jarduerak eta antzekoak egiten dituzten erakunde laguntzaileak.
- Neurri judizialak dituzten adingabekoen heren batetik gorako errealitatean parte hartzen duten adingabekoentzako gizarte-zerbitzuak eta babes-zerbitzuak.
- Osakidetza: Osasun Txartel Indibiduala (OTI), tratamendu anbulatorioak, barneratze terapeutikoak, osasun-azterketak, segimenduak, eta abar.
- Hezkuntza: derrigorrezko eskolatzea, lanbide-heziketarako hezkuntza-zentroak, urrutiko hezkuntza, berritzeguneak, eta abar.
- Atzerritarrak eta immigrazioa: dokumentazioa, lan egiteko baimena, egoitza-baimena, helduentzako arreta; Heldu-rekin lankidetzan aritzen da.
- Enplegua eta prestakuntza lana bilatzeko ibilbideak, arautu gabeko prestakuntza-ikastaroak, eguneko zentroak, eta abar.
- Etxebizitza: alokairu-erregimeneko etxebizitzak lortzea; higiezinak lagatzea Autonomia Egoitzak kokatzeko.

IV. 2006. URTEKO NEURRIAK: BILAKAERA ETA OROKORTASUNAK

A. NEURRIEN BILAKAERA 2002-2006 ALDIAN

KUDEAKETA DATUAK

Neurria	2002	2003	2004	2005	2006
Gizartearen Mesederako Prestazioak	185	321	430	506	469
Zaintzapeko askatasun irmoa	176	191	259	180	189
Kautelazko zaintzapeko askatasuna				21	18
Tratamendu ambulatorioa	31	18	25	33	16
Gizarte- eta hezkuntza-arloko zereginak	27	47	66	95	73
Barneratze irmoa	98	110	142	113	156
Kautelazko barneratzea				24	30
Asteburuko egonaldia	62	71	88	66	147
Harrera	3	3	5	4	3
Eguneko zentro batera joatea	0	0	2	12	6
Guztira	582	761	1.011	1.054	1.107
Behin betikoak				1.009	1.059
Kautelazkoak				45	48
Igoera	171	179	250	43	53
% igoera	41,6	30,8	32,8	4,25	5,0



Datuak aztertuta, honako ondorio hauek atera ditzakegu:

- Adingabeen Epaitegietan ezarritako neurrien kopuruan hazkunde nabarmena izan den lau urteren ondoren, 2006. urtean nolabaiteko egonkortasunera iritsi da, %5eko hazkundearekin. Urteko azken sei hilekoan justiziako langileen greba gertatu ez balitz, hazkundea handiagoa izango litzateke; izan ere, greba horren ondorioz hainbat audientzia, agerraldi eta jakinarazpen-egintza bertan behera utzi dira.
- Kautelazko neurriak, zaintzapeko askatasunak eta barneratzeak guztizkoaren %3,43 izan dira. Kautelazko barneratzeak %25 ugaritu dira 2005. urtearekin alderatuta, eta zaintzapeko askatasunak %14,3 urritu dira.
- Gizartearen mesederako prestazioen neurria izan da gehien ezarri dena, nahiz eta aurreko urtearekin alderatuta %7,3 puntu jaitsi den.
- Gizarte- eta hezkuntza-arloko zereginak %19 ugaritu dira 2006. urtean, eta aurreko urtean %40 baino gehiagoko hazkunde ikaragarria izan zuten.
- Zaintzapeko askatasun irmoak %5 ugaritu dira, lehengo gorako joera hautsiz.
- Tratamendu ambulatorioak erdira urritu dira neurri independente gisa. Hala ere, inoiz baino gehiago ezarri dira zaintzapeko askatasunen barruan eginkizun gisa edo barneratzeetan betebeharrak gisa. Betearazpenaren erakunde arduradunaren ikuspuntutik, praktika hori aldatu eta modu independentean ezarri behar dela uste dugu.


- Tratamendu anbulatorioen antzeko egoeran dago eguneko zentroetara joateko neurria. 6 aldiz bakarrik ezarri da neurri independente gisa, eta askotan zaintzapeko askatasun baten barruko eginkizun gisa ezarri da. Horrek bi ondorio nagusi ekarri ditu: alde batetik, neurrien eta baliabideen arteko egokitzapena izugarri zailtzen du, izendatutako neurriek ez baitute justifikatzen eguneko zentroetako leku erabilgarriak handitzea, neurri hori ezartzen ez bada, eta, beste aldetik, eztabaidagarria da neurri baten barruan neurri murritzaleago bat betetzeko agindua ezartzea, 5/2000 Lege Organikoaren 7. artikuluko lehentasunaren arabera.
- Barneratze irmoen kopurua %38 handitu da, eta horien iraupena ere handitu da. Gogortasun gehiagorako joera ezarri da. Askatasunaz gabetzen ez duten neurrien aurrean, askatasunaz gabetzen dutenak ugaritu dira, eta barneratzeen batez besteko iraupena handitu da.
- Oro har, neurrien iraupena luzatzeko joera dago.
- Asteburuko egonaldiak izugarri ugaritu dira, 66tik 147ra. Ildo horretatik, neurrien ezarpenari dagokionez, epaitegietan irizpideak aldatu direla dirudi.
- Joan den urtean agertu ziren arazoez gain, zaintzapeko askatasuneko neurriak eta barneratze-neurriak mantendu dira gurasoen aurkako indarkeria-delituak egiten dituzten neska-mutilentzat eta patologia psikiko larriak dituzten gazteentzat, eta beste neurri batzuen barruan, batez ere barneratze erdi-irekietan eta zaintzapeko askatasunetan, tratamendu psikologikoak edo toxikomanien aurkakoak jarraitzen dituzten neska-mutilen kopurua izugarri handitu da. Adingabe atzerritarrak barneratzeko neurrien kopurua handia izan da aurten ere (%30). Datu berri gisa, Hegoamerikako hainbat gazte barneratu dela nabarmendu behar da. Barneraturiko gazteen ehuneko handi bat babes-sistematik dator, hau da, kautelazko barneratzeen %76,7 eta irmoen %50.

Neurrien bilakaeraren azterketa labur eta orokor hau egin ondoren, Adingabeen Erantzukizun Penalari buruzko 5/2000 Lege Organikoa aplikatzearen ondorioz, Adingabeen Epaitegiek adingabeei ezarritako neurriak betearazteari buruz nabarmentzen diren datu esanguratsuenak honako hauek dira:

JATORRIZKO EPAITEGIAREN ARABERAKO NEURRIAK – 2006. URTEA

	Bilbo 1	Bilbo 2	Gasteiz	Donostia	Beste batzuk	GUZTIRA
GMPak	126	134	67	124	18	469
Kautelazko zaintzapeko askatasuna	5	4	2	7	0	18
Zaintzapeko askatasun irmoa	74	57	14	36	8	189
Tratamendu anbulatorioa	7	4	5	0	0	16
Gizarte- eta hezkuntza-arloko zereginak	23	23	10	11	6	73
Kautelazko barneratzea	8	11	2	9	0	30
Barneratze irmoa	38	49	9	55	5	156
Asteburuko egonaldia	10	18	22	92	5	147
Harrera / CGE	1	2	0	0	0	3
Eguneko zentro batera joatea	5	1	0	0	0	6
GUZTIRA	299	303	129	334	42	1.107
EHUNEKOAK	27	27,4	11,6	30,2	3,8	100

(Bitartekotzak eta kargu-hartzeak ez dira kontuan hartu)



B. NEURRIEN AZTERKETA.


b.1. Gizartearen Mesederako Prestazioak (GMP).

Neurri hori ezartzeko eraginpeko gaztearen onespena beharrezkoa da. Onespen hori ez bada ematen, epaileak neurrien zerrendako beste neurri bat hautatu beharko du. Hutsegiteak nahiz delituak egiteagatik ezarri ahal izango da.

GMPak – EPAITEGIEN ARABERA BANATUTA – 2006. URTEA

	GMP kopurua	%	Epaitegiko neurrien %-a
Bilbo 1	126	26,9	42,1
Bilbo 2	134	28,6	44,2
Donostia	124	26,4	37,1
Gasteiz	67	14,3	51,9
Beste batzuk	18	3,8	42,8
GUZTIRA	469	100	42,4


Neurri honen epaitegien arabera banaketak ez du garrantzi berezirik. Hala ere, epaitegi bakoitzean duen garrantzia oso desberdina da; fluktuazioak Donostiako %37tik Gasteizko %52ra bitartekoak dira.



Sexuaren arabera banaketari dagokionez, gainerako neurrietan bezala, mutilak (%80,2) nesken (%19,8) gainera nagusitzen direla ikus daiteke, baina neurri honen kasuan aldea beste neurrietan baino txikiagoa da.


Jaioterriari dagokionez, honako datu hauek daude:

Euskal Autonomia Erkidegoa.....	%64,7
Estatuko gainerako lekuak.....	%8,2
Europako gainerako herrialdeak ...	%1,9
Magrebeko herrialdeak.....	%14,5
Afrikako gainerako herrialdeak.....	%3,0
Hego Amerika.....	%4,8
Beste batzuk.....	%2,9



Foru Aldundi baten zaintzapean edo ardurapean dauden ehunekoa %22,4ra iristen da; gainerakoak beren familiekin bizi dira.

Gertatutakoa egin den unean batez besteko adina 16 urte eta bi hilabete dira. 14 urte dituztenek %15 osatzen dute, 15 urtekoek %25,1, 16 urte dituztenek %28,6, eta 17 urtekoek %31,3.



Gertakarien %72,5 hutsegiteak izan dira, eta %27,5 delituak (kalteak, ibilgailua erabiltzeko ebasketak, ebasketa-delituak, larderiez egindako lapurreta, etab.).

GMPak – NEURRIEN IRAUPENA – 2006. URTEA

Ordu kopurua	%
10 ordu arte	6,8
11-20 ordu	33,8
21-30 ordu	27,5
31-40 ordu	13,5
41-60 ordu	13,5
61-100 ordu	4,3
100 ordu baino gehiago	0,5
GUZTIRA	100

Neurrien batez besteko iraupena pixka bat handitu da, 32 ordura iritsiz.

Urtean zehar gizartearen mesederako prestazioak egin dituzten gazteak egon diren erakundeak azpimarratu behar dira; 2006an parte hartu duten zerbitzuak edo programak 100era hurbildu dira. Erakunde horiei dagokienez, honako hauek aipamen berezia merezi dute: Gipuzkoan eta Bizkaian Gurutze Gorriak egindako zerbitzuak, Merkadeko, Zuzenak Fundazioa, Gazte Justiziaren hezkuntza-zentroak, Bizkaiko Caritas, DYA — Errepidean Laguntzeko Elkartea—, Nuestra Señora de las Mercedes Eguneko Zentroa, Gipuzkoako kale-hezitzaileen taldeak eta Bizkaiko gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartze taldeak —EISES—, Udalen menpeko udal-zerbitzu batzuk (Gipuzkoan nagusiki), etab.

Honako jarduera hauek egin dira: bidezko merkataritzako eta elikagaien banaketako programak, lorazaintzako eta parkeen eta kanpoko obren mantentze-jarduerak, lekuz aldatzeko zailtasunak dituztenentzako laguntza, haurrei eta hirugarren adinekoei zuzendutako jarduerak, barne mantentze-obrak, animalien zaintza, etab.


b.2. Zaintzapeko askatasuna

b.2.1. Kautelazko zaintzapeko askatasuna (KZA)

Adingabeen Erantzukizun Penal arautzen duen 5/2000 Lege Organikoak, 28. artikuluan, Adingabeen Epaitegiek kasu jakin batzuetan kautelazko neurriak ezartzeko duten ahalmena ezartzen du. Kautelaz ezarri daitezkeen neurrien artean zaintzapeko askatasuna dago.

2006. urtean zaintzapeko askatasuneko kautelazko 18 neurri ezarri ziren. Epaitegien arabera honela banatzen dira:

Gasteizko Adingabeen Epaitegia	2
Donostiako Adingabeen Epaitegia.....	7
Bilboko Adingabeen 1. Epaitegia	5
Bilboko Adingabeen 2. Epaitegia	4



18 pertsona horietatik 15 mutilak dira eta 3 neskak. Horien %77,8 Euskal Autonomia Erkidegoan jaioak dira, eta gainerakoak jatorri desberdinekoak dira.

Gertakaria gauzatzerakoan gazteen batez besteko adina 16 urte ziren; %78,6k 16 urte baino gehiago zituzten.


Gehienak familia-etxebizitzan bizi ziren, eta %16,7 Foru Aldundi baten ardurapean bizi ziren.

Kautelazko neurri hori ezartzea eragin zuten gertakariak honako hauek izan ziren:

KZA – EZARTZEA ERAGIN ZUTEN GERTAKARIAK – 2006. URTEA


	KZA kopurua	%
Lesioak	1	5,6
Etxeko indarkeria eta ohiko tratu txarrak	8	44,4
Lapurreta indar./larde.	4	22,2
Ibilgailua lapurtzea	1	5,6
Indarrez lapurtzea	1	5,6
Osasun publikoaren aurka	1	5,6
Mehatxuak	1	5,6
Sexu-abusua	1	5,6
GUZTIRA	18	100

Kasu gehienetan eraso edo indarkeria erabili da: ohiko tratu txarrak, etxeko ohiko indarkeria, lapurretak indarkeriarekin edo larderiarekin, lesioak eta sexu-abusuak. Kasuen %78n gertatzen da hori.




Gertatutakoa egiteko moduari dagokionez, honela banatzen dira:

Bakarka.....%67,0
Beste adingabe batzuekin%22,2
Beste batzuekin.....%5,6
ED/EE.....%5,6



KZA – NEURRIAREN IRAUPENA – 2006. URTEA

	KZA kopurua	%
3 hilabete	8	44,4
3-6 hilabete	7	38,9
6-9 hilabete	1	5,6
9 hilabete baino gehiago	2	11,1
GUZTIRA	18	100



Barneratzeko kautelazko neurriek ez bezala, zaintzapeko askatasunekoek ez dute iraupen zehatzik. Hala ere, kasu gehienetan, hasieran 3 hilabeteko iraupena erabakitzen da, gero luzatu ahal izango dena. Normalean (%70) kautelazko egoera ez da 6 hilabete baino gehiago luzatzen. Dena den, bi aldiz 9 hilabete baino gehiagokoa izan da.


Behin bakarrik ordezkatu zen kautelazko barneratzearekin.

b.2.2. Zaintzapeko askatasun irmoa (ZAI)

Gizartearen mesederako prestazioez gain, zaintzapeko askatasunak dira gure gizartean gehien ezartzen diren neurriak. Egiten ari garen azterketan ez dira kontuan hartzen barneratze-neurrien bigarren aldiak, baizik eta zaintzapeko askatasuneko neurri irmoak bakarrik.

Neurri hori honela banatzen da jatorri-epaitegiaren arabera:

Gasteizko AE.....	14.....	%7,4
Donostiako AE	36.....	%19,0
Bilboko 1. AE.....	74.....	%39,1
Bilboko 2. AE.....	57.....	%30,2
Adingabeen beste Epaitegi batzuk	8.....	%4,2




Neurri horren ezarpenean Bilboko 1. eta 2. Epaitegiak nabarmentzen dira. Hala ere, aldeak ez dira nabarmenak. Dena den, zaintzapeko askatasuneko neurriak aurreko urteekin alderatzen baditugu, alde handiak ikusiko ditugu:

ZAINTZAPEKO ASKATASUNAREN BILAKAERA EPAITEGIEN ARABERA

2006. URTEA

(kautelazkoak ere kontuan hartu dira)

	2003	2004	2005	2006
GASTEIZ	9	36	24	16
DONOSTIA	30	37	54	43
BILBO 1	108	64	53	79
BILBO 2	38	112	60	61
BESTE BATZUK	6	10	8	8
GUZTIRA	191	259	201	207



Neurri horren bilakaerak ez du ondorio linealak ateratzeko aukera ematen:

- ❖ Gasteizen, 2004. urtean sekulako hazkundea izan zen, eta hurrengo bi urteetan nabarmen txikitu zen, 2003ko egoerara hurbilduz.
- ❖ Donostian, urtero handitu da 2003. urtetik aurrera. Hala ere, 2006. urtean atzerakada gertatu da.
- ❖ Bilboko 1. epaitegiak beherako joera dauka, eta oso nabarmena izan da 2004. urtean. Horren arrazoia aurreko urtean Bilboko 2. epaitegia irekitzea izan daiteke. Nabarmen handitu da 2006. urtean.
- ❖ Bilboko 2. epaitegia izugarri handitu da 2004. urtean, hau da, jardun osoko lehen urtean, eta beherako joera izan du 2005. urtean. 2006. urtean egonkor mantendu da.

Zaintzapeko askatasuneko neurri irmoa aplikatu zitzaizen pertsonen honako ezaugarri hauek zituzten:

- Gehienak, %94,2, gizonak ziren, eta %5,8, aldiz, emakumeak.


- %73,5 Euskal Autonomia Erkidegoan jaioak dira, %5,3 Marokon edo Aljerian, %10,6 Amerikako, Afrikako edo Europako beste herrialde batzuetan, eta gainerako %12,2a beste Autonomia Erkidego batzuetan.
- %20 Foru Aldundi baten zaintzapean edo ardurapean zegoen.
- Delitua egin zuten unean 16 urte eta 3 hilabeteko batez besteko adina zuten. %55,8k 16 urte baino gehiago zuten; adinaren arabera honela banatu dira:
 - 14 urte 25 pertsona
 - 15 urte 58 pertsona
 - 16 urte 51 pertsona
 - 17 urte 54 pertsona
 - Adin ezezaguna..... pertsona 1

ZAI – NEURRIA EZARTZEA ERAGIN DUTEN DELITUAK

2006. URTEA

	ZAI kopurua	%
Indarrez lapurtzea	54	28,6
Lapurreta, indarkeria edo larderia erabiliz	43	22,7
Etxeko indarkeria / ohiko tratu txarrak	30	15,9
Lesioak	15	7,9
Erabilerako lapurreta/ebasketa	12	6,3
Beste batzuk	11	5,8
Kalteak	9	4,8
Agintaritzaren agenteekiko erresistentzia/atentatua	8	4,2
Mehatxuak	7	3,7
GUZTIRA	189	100

Gertakarien %58 lapurretak dira: indarkeriarekin edo larderiarekin, indarrez egindakoak eta erabilerakoak. Familiaren barruko indarkeria eta ohiko tratatu txarrak esku-hartzeen %16ren eragileak dira eta lesioak %8renak. Familiartekoeiko indarkeria eta lesioak izan dira gehien ugaritu direnak aurreko urtearekin alderatuta, 2005eko joerari eutsiz.




ZAI – NEURRIAREN IRAUPENA – 2006. URTEA

	ZAI kopurua	%
3 hilabetetik behera	8	4,2
3-6 hilabete	68	36
6-9 hilabete	59	31,2
9-12 hilabete	9	4,8
12 hilabete baino gehiago	45	23,8
GUZTIRA	189	100

Neurri horren ohiko iraupena 6 hilabete dira, eta maiztasunean hurrengoak 12 eta 9 hilabete dira.

Batez besteko iraupena 8,2 hilabetekoa da.



Neurriaren betearazpenean eragin zuzena duen eta horren eraginkortasuna eta edukia maiz baldintzatzen duen aipatu beharreko alderdia da honako hau: gertakariak egiten diren unetik Adingabeen Epaitegiak, neurria ezartzen hasteko, Gazte Justiziaren Zerbitzuari horren berri ematen dion arte igarotzen den denbora. Batez besteko denbora 10 hilabete dira, eta kasuen heren batean atzerapena urtebete baino luzeagoa da. Datu horren arabera, eta gertakariak egiteko unean gazteak duen adina kontuan hartuta, kasu gehienetan neurriaren hasiera gazteak 17 urte eta erdi dituenean gertatzen da.


b.3. Tratamendu anbulatorioa

Tratamendu anbulatorioko neurria 16 aldiz ezarri zen 2006. urtean. Zenbateko horrek Adingabeen Epaitegiak Zuzendaritza honetara bidalitako neurri guztien %1,4 osatzen du. Neurri hori ezarri zitzairen pertsona guztiak mutilak ziren eta denak Euskal Autonomia Erkidegoan jaioak. Era berean, aipatu beharra dago gazte horiek familia-etxebizitzan geratu zirela.

Batez besteko adina 16 urte eta erdikoa da; %68,6k 16 urte baino gehiago ditu. Guztien %14k 14 urte zituzten ekintzak gauzatu zituztenean.


Jatorrizko Epaitegiei dagokienez, honako datu hauek daude:

	Tratamendu anbulatorioen kopurua	%	Epaitegiko neurrien gaineko %-a
Bilboko Adingabeen 1. Epaitegia	7	43,7	2,5
Bilboko Adingabeen 2. Epaitegia	4	25	1,4
Donostiako Adingabeen Epaitegia	0	0	0
Gasteizko Adingabeen Epaitegia	5	31,2	3
Guztira	16	100	1,5




Honako taula honek tratamendu anbulatorioa ezartzea eragin zuten gertakariak biltzen ditu:

	%
Indarkeria familia-eremuan	12,5
Indarrez lapurtzea	31,25
Lapurreta, indarkeria edo larderia erabiliz	25
Agenteekiko atentatua	6,25
Sexu-abusua	6,25
Lesioak	6,25
Agintaritzaren agenteekiko atentatua	6,25
Trafikoaren segurtasunaren aurka	6,25
GUZTIRA	100




Aurreko urtean nagusitu zen arau-haustea familiako indarkeria izan zen, eta urte honetan, aldiz, lapurretak dira nagusitzen direnak, indarrez nahiz larderiez egindakoak. Gainerako gertakariak era askotakoak dira, eta horietako batek ere ez du garrantzi berezirik.

Gauzatzeko moduari dagokionez, bakarka egindako delituak nagusitzen dira (%81,25), eta soilik delituen %18,75 egin dira beste adingabe batzuekin.



Epaietan jasotako betearazpen-denborak aztertzen baditugu, honako banaketa hau aurkitzen dugu:

- 4 hilabete neurri 1
- 6 hilabete 8 neurri
- 8 hilabete neurri 1
- 9 hilabete 2 neurri
- 12 hilabete 2 neurri
- 18 hilabete neurri 1
- 24 hilabete neurri 1



Kasu gehienetan eman den iraupena 6 hilabetekoa izan da. Deigarria da kasu batean iraupena 2 urteko izatea.

Emandako tratamenduari dagokionez, datuek honako egoera hau adierazten dute:

- Terapia psikologikoa eta droga-mendetasuneko tratamendua %56,25
- Banakako terapia %43,75


Tratamendu anbulatorioaren neurria betearazteko unean, deigarria da kasuen %68n eskaerei erantzuteko profesionalak edota erakunde pribatuak kontratatu behar izana. Alderdi kuantitatiboei —saioen aldizkakotasuna, iraupena, eta abar— nahiz kualitatiboei dagokienez —esku-hartze mota—, eskaintza publikoak ez du eskaera betetzeko ahalmena.

b.4. Gizarte- eta hezkuntza-arloko zereginak

2006. urtean, Adingabeen Epaitegiek gizarte- eta hezkuntza-arloko zereginak betetzeko 73 neurri ezarri zituzten. 11 kasuetan (%15,1) neskak izan dira, eta gainerako 62 kasuetan (%84,9) mutilak. Jaioterriari dagokionez, honela banatzen dira: %68,5 Euskal Autonomia Erkidegoan, %12,3 Marokon, %6,85 beste Autonomia Erkidego batzuetan, %6,8 Hego Amerikan, eta %5,5 Afrikan.


GIZ. ETA HEZK. ZEREGINAK JATORRIZKO EPAITEGIEN ARABERA

	Neurri kopurua	Gizarte- eta hezkuntza-arloko zereginen %-a /Epaitegia	Epaitegiko neurri irmoen gaineko %-a
Bilbo 1	23	31,5	8,3
Bilbo 2	23	31,5	8,2
Donostia	11	15,1	3,6
Gasteiz	10	13,7	8,1
Beste batzuk	6	8,2	2,8
GUZTIRA	73	100	6,9




Gizarte- eta hezkuntza-arloko zereginak 2006. urteko neurri guztien %6,9 osatzen dute. Horien banaketa oso irregularra da; izan ere, Bilboko epaitegietan neurrien %8,3 osatzen dute, eta Donostiako epaitegietan, aldiz, %3,6.

Adinaren arabera banaketari begiratuz gero, 16 urtetik gorakoek neurria ezarri zitzaizen pertsonen %70 osatzen dutela ikusiko dugu. %9,7k 14 urte zituzten ekintzak gauzatzerakoan, %19,4k 15 urte zituzten, %30,6k 16 urte, eta gainerako %40,3ak 17 urte.




GIZ. ETA HEZK. ARLOKO ZEREGINAK – IRAUPENA – 2006. URTEA

	Neurri kopurua	%
≤ 3 hilabete	11	15,1
> 3 hilabete eta ≤ 6 hilabete	43	58,9
> 6 hilabete eta ≤ 9 hilabete	13	17,8
> 9 hilabete eta ≤ 12 hilabete	6	8,2
> 12 hilabete	0	0
Iraupenaren daturik ez	0	0
GUZTIRA	73	100




Neurrien %73 baino gehiagok 6 hilabetetik beherako iraupena dute; neurriak ez du inoiz urtebetetik gorako iraupena izan.

Ekintzak gauzatu ziren moduari dagokionez, honako hau azpimarra dezakegu: %37k beste adingabe batzuekin gauzatu dituzte ekintzak, %40k bakarka gauzatu dituzte, %12,3k beste pertsona batzuekin gauzatu dituzte, eta gainerakoek helduekin.



2006. urtean, gizarte- eta hezkuntza-arloko zereginen neurria ezartzea eragin zuten ekintzak honako hauek izan ziren:

- Lesioak..... %10,9
- Indarkeriaz/larderiaz egindako lapurretak ... %35,6
- Erabilera-ebasketa..... %13,7
- Indarrez lapurtzea..... %12,3
- Osasun publikoaren aurka..... %4,1
- Agintaritzaren agenteekiko erresistentzia %5,5
- Familiako indarkeria/tratu txarrak %4,1
- Beste batzuk..... %13,8



b.5. Eguneko zentro batera joatea

Euskal Autonomia Erkidegoan eguneko zentro batera joateko neurriak betearazteko berariazko lehen errekurtsua 2004. urteko azken hiruhilekoan jarri zen martxan.

ZABALIK Eguneko Zentroa Basaurin (Bizkaia) dago, eta Bilboko eta inguruetako neska-mutilak artatzen ditu.

Urte osoan ezarritako 6 neurrietatik bost Bilboko Adingabeen 2. Epaitegiak ezarri zituen, eta bestea Bilboko Adingabeen 1. Epaitegiak. Era berean, aipatu beharra dago neurri horien zuzeneko ezarpenaz gain, kasu gehienetan neurri hori zaintzapeko askatasun bateko eginkizun edo betebeharrak gisa ezarri zela.

Zuzendaritza honek egindako azterketatik abiatuta, gure ustez zaintzapeko askatasun batean eguneko zentro batera joateko eginkizuna edo betebeharrak ezartzea zigor gehigarri bat ezartzea da. Eguneko zentro batera joateak, bere izaeragatik, eskubideak gehiago mugatzen ditu eta zaintzapeko askatasunak baino betebeharrak garrantzitsuagoak ekartzen ditu. Nolanahi ere, hori gertatu denean, Gazte Justiziaren Zerbitzuak neurri horiek eguneko zentro batera joatea balira bezala betearazi ditu.

Azpimarratu beharra dago urte osoan zentroaren batez besteko okupazioa %85ekoa baino handiagoa izan dela, eta zuzeneko neurrien kopuruak okupazioaren %30 baino ez duela justifikatzen.

Neurrien kopuru txikia dela-eta, ez dira azterketa gehiago egiten.

C. BARNERATZE NEURRIAREN ETA ASTEBURUKO EGONALDIKO NEURRIAREN BERARIAZKO AZTERKETA


c.1. Kautelazko barneratzeak

2006. urtean kautelazko 30 barneratze erabaki dira.

KAUTELAZKO BARNERATZEAK, JATORRIZKO EPAITEGIEN ARABERA

2006. URTEA


	Neurri kopurua	%
Bilbo 1	8	26,7
Bilbo 2	11	36,7
Donostia	9	30
Gasteiz	2	6,7
GUZTIRA	30	100



Neurri horren aplikazio-erregimena azpimarratu beharra dago: %66,6 erregimen erdi-irekian, %30 erregimen itxian, eta %3,3 irekian. Bilboko Epaitegiek ezarritako kautelazko barneratze-neurri guztiak erregimen erdi-irekikoak izan dira, eta Donostian eta Gasteizen erregimen itxikoak izan dira. Horrek adierazten duenez, argi dago Autonomia Erkidego honetako adingabeen fiskaltzek eta epaitegiek irizpide desberdinak dituztela.


Kautelazko neurri hori ezartzea eragin zuten ekintzak honako hauek izan ziren:

- Lapurreta, indarkeria edo larderia erabiliz..... 11
- Indarrez lapurtzea..... 5
- Familiako tratu txarra..... 4
- Lesioak..... 6
- Beste batzuk..... 4




Lehenik eta behin, aipatu beharra dago kautelazko barneratze-neurriak %25 ugartu direla aurreko urtearekin alderatuta.

Deigarria da familiaren barruko tratu txarreatatik edo indarkeriatatik kautelazko barneratze-neurrien joeran izan den aldaketa deigarria da. 2005. urtean hura izan zen kautelazko barneratzeen %37,5en arrazoia, eta 2006. urtean %13,3ra jaitsi da. Indarkeria edo larderia erabiliz egindako lapurretak ia %37ren arrazoia dira, eta lesioak %20renak.



Ekintzak gauzatzeko moduari dagokionez, bakarka egindakoak (%42,8) eta beste adingabe batzuekin egindakoak (%32,1) nagusitzen dira. Ekintzen %10,7 helduekin egin dira, eta %14,2 helduekin eta adingabeekin.




Oso deigarria da 2006. urtean neurri hori ez zitzaiola neska bati ere ezarri, neurri horiek guztiak mutilei ezarri baitzitzaien.

Neurriaren iraupenari dagokionez, batez besteko iraupena 93,5 egunekoa dela baieztatu dezakegu. Laburrena 4 egunekoa izan da, eta luzeena 180 egunekoa. Hirutik bitan iraupena hiru hilabetetik beherakoa izan da. Horrek argi uzten du Euskal Autonomia Erkidegoan ez dagoela behin-behineko neurrien legezko gehieneko iraupena luzatzeko beharrik, egun dagoen iraupenarekin dauden eskaerei arazorik gabe erantzuten baitzaie.

KAUTELAZKO BARNERATZEAK
EKINTZAK EGITERAKOAN GAZTEEK ZUTEN ADINA
2006. URTEA

	Neurri kopurua	%
15 urte baino gehiago	1	3,3
15-16 urte	0	0
16-17 urte	10	33,3
17 urte baino gehiago	14	46,7
Ez dago daturik	5	16,7
GUZTIRA	30	100




Kautelazko barneratzeen eraginpekoen batez besteko adina 17 urte dira. 2006. urtean neurri horren bidez zentro batean sartu zen pertsona gazteenak 14 urte eta 8 hilabete zituen, eta zaharrenak 17 urte eta 11 hilabete. Aurreko urtearekin alderatuta, adina lau hilabete igo da. Adinari buruzko daturik ez zegoen kasuetan, bakarrik zeuden adingabe atzerritarrak ziren.

Horien zaintza-egoera edo tutoretza-egoera honako hau da:

- %76,7 Foru Aldundien adingabeen babes-zerbitzuen zaintzapean edo tutoretzapean dago.
- %23,3 ahaideekin edo etxetik kanpo bizi da.

Egoera horrek sekulako aldaketa suposatzen du aurreko urtearekin alderatuta; izan ere, aurreko urteko zifrak ia kontrakoak ziren.

Gehienak, %43,3, Magrebeko herrialdeetan jaioak dira, Marokon batez ere, %30 Euskal Autonomia Erkidegoan, %13,3 Europako beste herrialde batzuetan, %6,75 Estatuko beste toki batzuetan, eta gainerakoak, %6,6a, Hego Amerikan.



c.2. Behin betiko barneratzeak


2006. urtean kautelazko neurriez gain, behin betiko barneratze-neurriak ere jaso dira. Neurri horiek beheko taulan azaltzen den moduan banatu dira Epaitegietan.

BARNERATZEAK, JATORRIZKO EPAITEGIEN ARABERA

2006. URTEA

	Neurri kopurua	Barneratzeen %-a / Jatorrizko epaitegia	Epaitegiaren neurrien gaineko %-a
Bilbo 1	38	24,3	13,8
Bilbo 2	49	31,4	17,5
Donostia	55	35,2	17,9
Gasteiz	9	5,8	7,25
Beste epaitegi batzuk	5	3,2	11,9
GUZTIRA	156	100	14,8


Edozein erregimeneko barneratzeek ezarritako neurri guztien %17,6 osatzen dute, kautelazkoak nahiz irmoak izan. Kautelazko neurriak deskontatzen baditugu, ehunekoa %14,8 izango da.



BARNERATZEAK, JATORRIZKO EPAITEGIEN ETA BARNERATZE ERREGIMENAREN ARABERA

2006. URTEA

Epaitegia/ Erregimena	Irekia	Erdi-irekia	Itxia	Terapeutiko a	GUZTIRA
Bilbo 1	0	36	0	2	38
Bilbo 2	0	48	0	1	49
Donostia	3	41	6	5	55
Gasteiz	1	8	0	0	9
Beste batzuk	0	5	0	0	5
GUZTIRA	4	138	6	8	156




Lehenik eta behin, aipatu beharra dago aurreko urtearekin alderatuta barneratze-neurriek izan duten gorakada handia, zehazki %37. Horrek 2004. urtean markatutako joera indartzen du.


156 barneratze-neurri irmoetatik 138, hau da, %88,5, erregimen irekikoak izan dira. Gainerako erregimenak ez dira inoiz %6ra iritsi.

Barneratze-neurri irmoak aztertzen baditugu, honako ondorio hauek atera ditzakegu:

- %7,7 neskei ezarri zaizkie. Mutilei ezarritakoak %93,3 izan dira. 2005. urtean neskei ezarritakoak %3,4 izan ziren.
- %59 Euskadin jaioak dira; %23,1 Marokon; %10,9 beste Autonomia Erkidego batzuetan jaioak dira; %5,1 Hego Amerikako herrialdeetan, eta %1,9 beste herrialde batzuetan.



- Neurri hori ezartzea eragin duten gertakarien artean honako hauek nagusitzen dira:
 - Lapurreta, indarkeria edo larderia erabiliz %38,8
 - Indarrez lapurtzea %17,2
 - Etxeko indarkeria/tratu txarra..... %9,6
 - Lesioak %7,0
 - Beste batzuk..... %27,4




“Beste batzuk” atalean honako hauek nagusitzen dira: liskar iskanbilatsua, ibilgailuaren erabilera-lapurreta, neurri-haustea, agintaritzaren agenteekiko erresistentzia, osasun publikoaren aurka, sexu-abusua, etab.

Barneratze-neurria ezartzea eragiten duten gertakariei dagokienez, adierazi beharra dago kasuen %38,2n gertakari batek baino gehiagok eragiten duela: lesioak, tratu txarra, mehatxuak, agintaritzaren agenteekiko erresistentzia, etab.

BARNERATZEAK: EKINTZAK EGITERAKOAN GAZTEEK DUTEN ADINA **2006. URTEA**

	Barneratzeak	%
14 urte	32	20,5
15 urte	28	17,9
16 urte	51	32,7
17 urte	42	26,9
Zehaztu gabea	3	1,9
GUZTIRA	156	100



Ekintzak egiterakoan gazteek duten batez besteko adina 16 urte eta 8 hilabete da, aurreko urtekoa baino 8 hilabete gehiago.

Ekintzak egiten direnetik Adingabeen Epaitegiek betearazpena eskatzen dutenera arteko atzerapena 280 egunekoa da. Denbora horren ondorioz, gazte-justiziako zentroan sartzen denerako adingabearen batez besteko adina 17 urte ingurukoa da.


EAEn neurri horren nondik norakoaren beste bereizgarri bat iraupena da.

BARNERATZEAK – IRAUPENA

2006. URTEA

	Neurri kopurua	%
3 hilabete baino gutxiago	5	3,2
3-6 hilabete	52	33,3
6-9 hilabete	36	23,1
9-12 hilabete	18	11,3
12 hilabete baino gehiago	45	28,8
GUZTIRA	156	100

Neurri bakoitzaren batez besteko iraupena 10,3 hilabetekoa da, zentroan egonaldia 6,67 hilabetekoa da, eta zaintzapeko askatasuneko aldia 3,63 hilabetekoa da. Gehien ezarri zen zaintzapeko askatasuneko fasea 3 hilabetekoa izan zen (kasuen %33), eta hurrengoa 6 hilabetekoa izan zen (kasuen %21,5). Neurrien %70en kasuan, zentroan egoteko fasea 6 hilabetekoa edo gutxiagokoa izan zen, eta soilik %14an izan zen urtebetetik gorakoa.




c.3. Asteburuko egonaldiak

2006. urtean Adingabeen Epaitegiek asteburuko egonaldiko 147 neurri betearaztea eskatu dute. Aurreko urtean asteburuko egonaldiak 66 izan zirela kontuan hartuta, igoera %100 baino handiagoa izan da. Zenbateko horrek ezarritako neurri guztien gaineko %13,9 suposatzen du.

ASTE BURUKO EGONALDI AK JATORRIZKO EPAITEG IEN ARABERAKO BANAKETA 2006. URTEA

	Asteburuko egonaldi kopurua	Egonaldi guztien gaineko %-a	Epaitegiko neurrien gaineko %-a
Gasteiz	22	15,0	17,6
Bilbo 1	10	6,8	3,6
Bilbo 2	18	12,2	6,4
Donostia	92	62,8	30
Beste batzuk	5	3,4	11,9
GUZTIRA	147	100	13,9



Neurri honen banaketak ez du loturarik Epaitegi bakoitzaren guztizko garrantziarekin. Donostiak ezarritako asteburuko egonaldien %60 baino gehiago biltzen ditu, eta Bilboko Epaitegiek, 1.ak batez ere, oso gutxitan ezartzen dute neurri hori. Horrek adierazten duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko agente judizialen artean neurri hori proposatzeko eta ezartzeko irizpide desberdinak daude.

Gutzizko zifran (147) ez dira kontuan hartzen beste neurri batzuk, batez ere gizartearen mesederako prestazioak, ez betetzeagatik asteburuko egonaldiekin aldatu direnak.

Era berean, adierazi beharra dago hamabi aldiz (kasuen %8,2) neurri hori zigortutako pertsonaren etxebizitzan bete behar dela. Gainerakoak (%91,8) Gazte Justiziaren hezkuntza-zentro batean bete behar dira.


2006. urtean, zentro batean asteburuko egonaldiko neurria 133 aldiz mutilei (%90,5) ezarri zitzaaien eta 14 aldiz neskei (%9,5).

Ekintzak egiterakoan gazteek zuten adinari dagokionez, banaketa honako taula honetan adierazten da:


ASTEBURUKO EGONALDIA
ADINAREN ARABERAKO BANAKETA
2006. URTEA

	Asteburuko egonaldi kopurua	%
14 urte	12	8,2
15 urte	34	23,1
16 urte	51	34,7
17 urte	48	32,6
ED/EE	2	1,4
GUZTIRA	147	100

Oro har 16 urtetik gorakoei aplikatzen zaien neurria da; ekintzak egiterakoan gazteen %70ek 16 urte edo gehiago zituzten. Batez besteko adina 16 urte eta 6 hilabetekoa da. Ekintzak egiten direnetik erakunde publikoari betearazpen-eskaera jakinarazten zaion arte igarotzen den denbora kontuan hartuta, adierazitakoak berekin dakar betearazpenak hasterakoan batez besteko adina 17 urte eta erdi baino gehiago izatea.



2006. urteko beste alderdi deigarri bat neurri hori ezarri zitzaizen pertsonen jaioterria da: soilik %56 jaio zen Euskal Autonomia Erkidegoan, %28 Magreben jaioa zen, %10,2 beste Autonomia Erkidego batean, %6,1 Hego Amerikan, %4 Europako beste herrialdeetan, eta %2 Afrikako beste herrialdeetan.




Adierazi beharra dago %34,7 hiru Foru Aldundietako baten zaintzapean edo tutoretzapean zegoela.

Neurria ezartzea eragin zuten gertakariei buruzko datuak eman aurretik, adierazi beharra dago neurri hori hutsegite edo delitu gisa sailkatutako ekintzak egiteagatik ezar daitekeela.

ASTEBURUKO EGONALDIAK
NEURRIA EZARTZEA ERAGITEN DUTEN EKINTZAK
2006. URTEA

	Asteburuko egonaldi kopurua	%
Ebasketa	42	28,6
Lesioak	36	24,5
Mehatxuak/kalteak	23	15,6
Beste batzuk*	21	14,3
Indarrez lapurtzea	10	6,8
Egitezko tratu txarra	8	5,4
Lapurreta, indarkeria/larderia erabiliz	7	4,8
GUZTIRA	147	100


* Atal honetan honako hauek sartzen dira: desobedientzia, maula egitea, arau-haustea, ordena publikoaren aurkako hutsegitea, etab.



Hainbat alderdi deigarri dago. Lehenik, ebasketak ditugu, normalean hutsegiteak edo gertakari arinak direnak, eta guztien %28,6 direnak. Bigarrenik, zuzeneko erasoengatiko edo liskarretan gertatutako lesioak ditugu, eta hirugarrenik mehatxuak eta kalteak dira. Askotan neurri horren ezarpena eguneroko bizitzan, familia-etxebizitzan nahiz egoitza-zerbitzuetan gertatzen diren eta batzuetan larriak diren oldarkortasuneko edo mehatxuko noizbehinkako gertakariekin lotzen da.

Gertatutakoa egiteko moduari dagokionez, honela banatzen dira:

- Bakarka..... %48,9
- Beste adingabe batzuekin %36,7
- Zehaztu gabeko beste pertsona batzuekin %10,9
- Helduekin %7,5




ASTEBURUKO EGONALDIAK

NEURRIAREN IRAUPENA

2006. URTEA

	Asteburuko egonaldi kopurua	%
Asteburu 1	11	7,5
2 asteburu	47	32
3 asteburu	36	24,5
4 asteburu	37	25,2
5 asteburu	6	4,1
6 asteburu	4	2,7
7 asteburu	1	0,7
8 asteburu	4	2,7
10 asteburu	1	0,7
GUZTIRA	147	100



Batez besteko iraupena 3,2 asteburukoa izan zen, asteburu bakoitzaren iraupena 36 ordu izanik. Gehienak 2 asteburutik 4ra bitartekoak dira, eta oso gutxitan ezartzen dira 5 asteburu baino gehiagoko neurriak.

Oso esanguratsua da barneratze-neurri bat betetzen ari diren gazte askori asteburuko egonaldiak ezartzen zaizkiela; kasu horietan, barneratzearen jarraipen gisa betetzen dira. Etenik gabeko betearazpen horrek neskaren edo mutilaren eta neurria ezarri zuen Epaitegiaren oniritzia behar du. Kasu gehienetan, hezkuntza-zentroan egonaldia amaitu delako eta zaintzapeko askatasuneko fasea baldintzapeko gehiagorik gabe hasteko aplikatzen da.

15 aldiz egin dira aldaketak neurrian:

- Zaintzapeko askatasunera edo gizartearen mesederako prestazioak ematera aldatzeagatik.
- Gaztearen egoera pertsonala positiboa izanik, eta inguruan ongi gizarteratzen dela-eta, eraginkortasunik gabe geratu delako, edo espetxeratua izateagatik edo heriotzagatik.


V. PERTSONA BAKOITZEKO NEURRI ANIZTASUNA, 2006. URTEAN

Oraindik ere ustekizun negatibo bat dago horri buruz. Horren arabera, norbait une jakin batean Justizia Administrazioarekin harremanetan jartzen bada, horren barruan harrapatuta jarraituko du, batez ere adingabea bada, eta heldutasunera iristen denean espetxean egongo da. Urte honetako datuek hipotesi hori deuseztatzeaz gain, guztiz kontrakoa adierazten dute.

Neurri-aniztasuna – 2006. URTEA

(Neurri irmoak eta kautelazkoak barnean hartzen ditu)

2006ko neurriak	Pertsona kopurua	Metatuak	Gehitutako neurriak	Metatutako neurriak	Pertsonen %-a	Metatutako %-a	Neurrien %-a
1	410	410	410	410	64,9	64,9	37
2	121	531	242	652	19,2	84,1	21,9
3	49	580	147	799	7,7	91,8	13,3
4	18	598	72	871	2,8	94,6	6,5
5	12	610	60	931	1,9	96,5	5,4
6	8	618	48	979	1,3	97,8	4,3
7	8	626	56	1035	1,3	99,1	5
8	1	627	8	1043	0,1	99,2	0,7
9	1	628	9	1052	0,1	99,3	0,8
10	3	631	30	1082	0,5	99,8	2,7
12	1	632	12	1094	0,1	99,9	1,1
13	1	633	13	1107	0,1	100	1,2
GUZTIR A	633		1.107		100		100



Aurreko taulak 2006. urtean Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzan aurkeztu ziren neurri guztiak hartzen ditu kontuan, irmoak nahiz kautelazkoak. Neurri irmoak 1.059 izan ziren, eta kautelazkoak 48.

Neurri irmoen aniztasuna – 2006. URTEA

2006ko neurriak	Pertsona kopurua	Gehitutako neurriak	Pertsonen %-a	Neurrien %-a
1	417	417	66,72	39,38
2	114	228	18,24	21,53
> 2	94	414	15,04	39,09
GUZTIRA	625	1.059	100	100

2006ko neurriak	Pertsona kopurua (metatuak)	Neurri kopurua (metatuak)	Pertsonen %-a (metatuak)	Neurrien %-a (metatuak)
1	417	417	66,72	39,38
2	531	645	84,96	60,91
> 2	625	1.059	100	100

Gazte Justiziaren Zerbitzuan aurkeztutako 1.059 neurri irmoak 625 pertsonak bete zituzten, eta, beraz, horren arabera, pertsona bakoitzeko 1,7 neurri ezarri ziren.

Neska-mutilen %66,72ri neurri irmo bakar bat ezarri zitzaion 2006. urtean. Neurri bat edo bi bete zituztenak kontuan hartzen baditugu, pertsona guztien %84,96 bilduko dugu (531).

Delituak BERRIZ EGIN EZ dituztenen gehiengoaren errealitate horren beste muturrean 33 neska-mutilek osatutako talde bat dugu —guztizkoaren %5,28—; gazte horiek neurri irmoen %22,28 (236) justifikatzen dute. Talde horrek delitu-errepikapen maila oso altua dauka, urte berean 5 neurri baino gehiago ezarri baitzaizkie.

Gainera, etorkizun negatiboa dute, ez bakarrik delitu-errepikapenagatik, baizik eta, oro har, honako arrazoi hauengatik: eskola-porrota goiztiarra, delitu-aniztasuna, oso gaztetan delituak egin hastea —14 urte bete baino lehen—, familia-euskarririk eza edo eskasa, eta abar.

Delitu-errepikapenaren azterketak Euskal Autonomia Erkidegoko gazte-justiziaren errealitateari buruzko oinarritzko datuak ematen dizkigu, esate baterako honako hauek:

- Justizia-sistemeekin harremanetan jartzen diren neska-mutil gehienak behin bakarrik egiten dute; hori argi ikus dezakegu, bitartekotza-prozesuei dagozkien zifrak eta neurri judizial bakar bat dutenen zifrak kontuan hartzen baditugu.
- Delitu bat baino gehiago (delitu larriak ez) egin dutenek osatutako beste talde bat dugu; horiek, dagozkien neurria bete ondoren, ez dute beste arau-hauste penalik egiten.
- Bukatzeko, hirugarren talde bat dugu; talde hori neurri bat betetzen dutenen %5ek osatzen du, eta zenbateko hori %3ra edo 4ra txikitzen da, bitartekotza-prozesuak kontuan hartzen baditugu. Talde horrek izugarri baldintzatzen du justiziak adingabeekiko duen irudi publikoa: "*beti gazte berberak dira, horiekin ez da ezer lortu, etab.*", gazteen %95 baino gehiagoren errealitatea desitxuratuta eta ezkatuta. Gure kultura- eta gizarte-inguruko arau-hausteen jarraipenari buruzko azterketetan, zifra horiek praxi berri baten estandarren barruan daudela esan genezake. Pertsona horien eguneroko errealitateak, haien hazkuntza-historiek, eskola-porrotek, eredu positiboa izan daitekeen pertsona heldurik ez izateak, etorkizuneko ziurgabetasunak, bizitzeko baliabiderik ezak eta beste faktore batzuek gaitasun profesional handia eta hainbat sistemen —sanataria, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, etxebizitza, enplegua, sistema judiziala, etab.— konpromiso sendo eta egonkorra eskatzen duen errealitate baten aurrean jartzen gaituzte. Oro har, pertsona horiekiko eta haien inguruarekiko laguntzan amore ez emateko gizarte-konpromisoa eskatzen dute, egin dezakegun guztia eskainita eta aintzat hartuta gaur egun gizarte-zientziarako, medikuntzako, portaerako, justiziako eta beste arlo batzuetako profesional espezialistek ezin dugula %100eko eraginkortasuna bermatu gure lanetan.